

Urteberria

Emma Goldman

1912-01

Enpresari kristauak Jesusen jaiotza ospatu berri dute. Mozkinak eta Jainkoaren handitasuna areagotu nahian, Salbatzailea xurgatu dute arrazoi on batekin. Erospenaren garaipen argia! Kristok bere odola eman zuen elizek eta saltegi handiek irabazi gehiago egin dezaten. Bada, jaungoiko gorenaren eskuinealdean, berak ez badu madarikatzen garaipen hau aingeruenetan aingeruenei hunkitzeko, bihotza bildotsarena bezalakoxea du.

Zorionez, ateok gara, ez kristauak, eta inola ere ez, Salbatzailearen etsipen samingarriaren ardura-dunak.

Halere, *Mother Earth*-ek⁽¹⁾ urte berrirako dituen itxaropenak ez daude ez kalkulu erlijioso ez politikoen mende. Jendearengan berpiztutako ezagueraren mende daude, alegia, etorkizun handi eta zoriontsua beren eskuetan dutenen mende; guztion askatasuna eta ongizatean oinarritutako egitura sozial berria.

Bost urteetan zehar, *Mother Earth*-ek bereari eutsi dio lotiari esnatu, ahulari indartu eta ausartari kemena emateko, hala izanik, datorren borroka handian aurrealdea era dezaten. Haien zereginak errazak izatetik urrun egonik; gabezia irabaziaren gainetik nabarmendu zen. Kamarada guztien laguntzaren uste osoa dugu, ia ezinezkoa baita konpromezurik gabeko argitalpen beldurgabe bat mantentzea diruzalekeria eta espekulazioa darizkion atmosfera honetan. Ez dira mobilizatu *Mother Earth*-i laguntza eskaintzeko, behintzat, ez batek uste lukeen heineraino. Baliteke gure aldizkariak guztion onarpena ez jasotzea, edo, hobeto esanda, kamaradek ezin ulertzea *Mother Earth*-ek duen kokaleku zaila, alderdi baten edo iragarkisail baten babes eza, alegia. Edonola ere, aldizkariaren oinarritzko mantenua nire idazkietatik dator. Bestela, *Mother Earth* duela askotik desagertua egongo litzateke. Esan beharrik ez dago, anarkismoa ez litzake hil beharko aldizkaria etetzen bada. Hala eta guztiz ere, anarkismoak ez du inoiz erakusle baten behar hain handirik izan gaur arte. Propaganda anarkistak txikikeria eta nahitaezko gaizki ulertu bat izateari utzi dio. Jendea, bere esanahai sakon eta garrantzi handiaz ohartzen ari da. *Mother Earth*-ek, Amerikako aldizkari anarkista bakar gisa, jarreraren aldaketa soziala gorenera arte erabili behar du jakintza eta anarkismoaren printzipioen inguruko informazioa barreiatzeko. Horixe da bere helburua, hortan datza zeregina.

Hau guztia esanda, kamarada eta lagun orori egiten diegu dei bost urteko estres eta ekaitza ausarki jasan dituen borrokalari xumearekin bat egiteko. Lehenik eta behin, harpidetza berri dezaten eskatzen diegu gure lagunei. Horixe da egin dezaketene gutxiena. *The Soul of Man Under Socialism* (Gizonaren arima sozialismoaren pean) saiakeraren kopia bat banatuko da harpidetzaren berritze bakoitzarekin. Are gehiago lagundu nahi duten horientzat, harpidedun gehiago bilatzen lagun gaitzakete. Hiru harpidedun berri ekartzen dituen lagun orok, *Anarchism and Other Essays* (Anarkismoa eta beste saiakerak) eta *Conquest of Bread* (Ogiaren konkista) lanen doako kopia bana jasoko du. Eskala handiago batean gure hitza zabaltzeko nahi duten kamaradek gure 5 zentaboko panfletoak bidali behar dituzte, 100 panfleto 3 dolarretan salgai daudelarik.

Kamaradok eta lagunok, bildu ditzagun gure eskuak urte berri honetan aurrean dugun lan handirako. Heldu da garaia. Oraina bizkor iritsiko da bere amaierara. Anabatatik at, etorkizuna harmonia eta edertasun osoz azaleratzen da.

EMMA GOLDMAN.

P.S.: Hil honen bukaeran, gure urteroko martxa abiatuko dugu arerioaren kanpalekuan. Hitzaldi sorta berri batekin hasteko asmoa dugu Pittsburgh-en, Pennsylvania. Kamaradek eta taldeek nahiago dituzten datak niri jakinarazi diezazkizadela ahal bezain laster. Helbidea: 55 W. 28th street, New York.

⁽¹⁾ 1906an sortutako aldizkaria, bere leloa: "Zientzia sozial eta literaturaz dabilen hilerokoa". Iturria: Wikipedia (ingelesez)

Liburutegi anarkista



Emma Goldman
Urteberria
1912-01

2024ko urtarrilaren 2an eskuratua hemendik: fair-use.org
The New Year artikulua Emma Goldmanek idatzi zuen eta *Mother Earth*-en argitaratu zen 1912ko
urtarrilean. Jabari publikoan dago gaur egun. Itzulpenaren jatorria.

eu.anarchistlibraries.net